

## **1/2016 akta**

### **OSATEK, SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2016KO MARTXOAREN 23KOA**

Presidenteak deituta, Administrazio-kontseilua osatu da Osateken egoitzan, Bilboko Bizkaia plazako eraikinean (Urkixo zumarkalea 36, 5. sol.), 2016ko martxoaren 23an, 12:30ean. Jarraian adierazita datoz bertaratu direnen izenak eta gai-zerrenda:

#### **PARTE-HARTZAILEAK:**

##### **PRESIDENTEA**

Guillermo Viñegra García jn.

##### **KIDEAK**

Jon Etxeberria Cruz jn.

Antonio Arraiza-Armendariz jn.

Fernando Aguirre De Miguel jn.

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jn.

Lide Amilibia Bergaretxe and.

Susana López Altuna and., idazkari lanetan.

Bertaratu ezina adierazi du Pedro Hernando Arranz jaunak Osateken Administrazio-kontseiluko presidenteari zuzendutako idatzi batean, Osasun sailburuordea den Guillermo Viñegra jaunarengan bere ordezkaritza eta boto-eskubidea utzita.

Bileran izan da, baita ere, hitza duela baina botorik gabe, Josu Xabier Llano Hernaiz, Osatek, SAko zuzendari gerentea.

Gai-zerrendaren zenbait kontu zehatz argitzeko parte hartzen dute bilera honetan Jesús Escauriaza jaunak, Osatek, SAko Ekonomia eta Finantzako zuzendariak, eta Pedro Odriozola jaunak, Betean, SA enpresako ikuskatzaileak, azken hau Osatek, SAko kontuen kanpoko ikuskaritzaz arduratu baita.

#### **GAI-ZERRENDA:**

1. 2015 urteko kontuen formulazioa eta kudeaketa-txostena.
2. Urteko jarduera.
3. Kontratazioko barne jarraibideak aldatzea.
4. 2016ko jarduera aurreikuspenak.
5. Plantilla aldatzeko proposamena.
6. 2016ko ekintza garrantzitsuei buruzko informazioa:
  - Urdulizko Ospitalea.
  - Telelaguntza kontratatzeko espedientea.
7. Galde-eskeak

Administrazio-kontseiluko presidenteak bilerari hasiera eman dio, eta Lide Amilibia kide berria aurkezteaz batera, ongietorria eman dio.

Jarraian, Osatekeko zuzendari gerente Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza gai-zerrendako honako gai hauei heltzeko:

## **1. 2015 urteko kontuen formulazioa eta kudeaketa-txostena.**

Bertaratutakoek hala eskatuta, Pedro Odriozola ikuskatzaileari bilerara sartzeko gonbitea egin zaio eta egindako ikuskaritzaz hitz egin du. Bere esanetan, urteko kontuen gaineko ikuskaritzaren emaitza zera da, kontuek argi eta garbi erakusten dutela enpresaren egoera zein den. Horrez gain, alde zuzenetik ere esan duen bezala, deigarria da Osatek SAK duen mendekotasuna Osakidetzarekiko, Osasun Sailarekiko eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiken Sailarekiko.

Azalpen guztiak emanda, bilera utzi du Kontseiluko kideei parte hartu izana eskertu ondoren.

Gerenteak 2015 urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari buruzko datu gehiago eman ditu jarraian, tartean kontuetatik eta itxitako ekonomia-ekitalditik ateratako datu adierazgarrienak:

- Egoera balantzea 2015eko abenduaren 31n:

Aktiboa guztira (Korrontea eta Ez-korrontea): 16.258.319  
Ondare garbia + pasiboa: 16.258.319

- Galera eta irabazien kontua 2015eko abenduaren 31n:

Galera eta irabaziak: 3.004

- 2015eko ekitaldiko emaitzen Banaketa proposamena

Banaketaren oinarria: Galera eta irabaziak: 3.004

- Ibilgetu materiala:

Behin betiko zenbateko garbia: 7.008.945

- Ibilgetu ukiezina:

Behin betiko zenbateko garbia: 22.264

- Zerbitzua emateagatiko diru-sarrerak:

Erresonantzia Magnetikoak: 15.554.863  
Telelaguntza: 7.645.964

Guztira: 23.200.827

Sozietatearen langile finkoak guztira 2015/12/31n: 115 (73 emakume eta 42 gizon)

## 2. Urteko jarduera.

Gerenteak 2015ean zehar egindakoen berri eman du

- Irudi bidezko diagnostikoa

2015ean guztira 94.150 paziente artatu dira, hau da, aurreko urtean baino % 9,47 gehiago.

2015ean Erresonantzia Magnetikoen 125.120 miaketa egin dira, beraz, % 10,42 igo da horien kopurua 2014arekin alderatuta.

- Gizarte Telelaguntza (Betion):

Zerbitzu hori 38.512 pertsonari eman zaio 2015eko abenduaren 31n, 2014an baino % 13ri gehiago.

- Osasunaren Telemonitorizazio prozesua:

Gutxi gorabehera 400 pazienteri egin zaie arreta United for Health, Telepoc eta TeleTAO proiektuen barne.

- Ekipamendu berriak:

Hona hemen 2015eko ekitaldian egindako inbertsio nagusiak:

Galdakaoko Ospitalean zegoen Erresonantzia Magnetikoko ekipoa 1,5 TESLAko ekipoa berri batekin ordezkatzea 2015eko abenduan

Donostiako Unibertsitate Ospitaleko zentroan dagoen ekipoa batean egokitze-lanak egitea eta ekipamendu gehiagorekin hornitzea

- Kalitatea kudeatzea  
Hauek dira arlo horretan bideratutakoak

ISO 9001:2008 ziurtapena: Berritzea urteko kanpoko ikuskaritzaren ondoren.

ISO 14001:2004 ziurtapena: Berritzea urteko kanpoko ikuskaritzaren ondoren.

Ekoscan Arauaren ziurtapena: Berritzea.

Aintzat hartuta emandako dokumentazioa eta bat eginda kapital sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253 artikuluan jasotakoarekin, Administrazio-kontseiluak hau adostu du:

“Lehenengo: onartzea Sozietatearen 2015eko Urteko Kontuen formulazioa eta 2015eko Kudeaketa-txostena; ontzat emateko, bertaratu diren Kontseiluko kide guztiek sinatu dute.

Bigarren: Sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiari jakinaraztea eta proposatzea, han onar ditzaten, hala balegokio, esandako Urteko Kontuak, dagokion Kudeaketa-txostena eta 2015eko ekitaldiko Eraitzen Banaketa Proposamena, Kontseiluan aurkeztutako eran”.

### **3. Kontratazioko barne jarraibideak aldatzea.**

2013ko urriaren 7ko Administrazio-kontseiluan adostu zen kontseiluari alde zuzenetik baimena eskatu behar izatea baldin eta gutxi gorabeherako balioak edo eragiketaren kontratuaren balioak eskatzen badu 400.000 eurotik gorako ordaintze-betebeharren kontratazioa, Erresonantzia Magnetikoko ekipoen mantentze-lanekin lotutako funtzionamendu-gastuen kasuan.

Baimendutako mugan ez zenez BEZaren salbuespena aipatu, akordioa zuzen idatzita ez dagoela konturatu eta bileran adostu dute bertaraturakoek kontratazioko barne jarraibideak aldatzea eta testua horrela uztea:

“Bileran adostu da Sozietatearen Administrazio-kontseiluari alde zuzenetik baimena eskatu behar izatea baldin eta gutxi gorabeherako balioak edo eragiketaren kontratuaren balioak eskatzen badu 400.000 (LAUREHUN MILA) eurotik gorako ordaintze-betebeharren kontratazioa, BEZik gabe, Erresonantzia Magnetikoko ekipoen mantentze-lanekin lotutako funtzionamendu-gastuen kasuan”.

### **4. 2016ko jarduera aurreikuspenak.**

Ekitaldia ixteko egunetik urteko kontuen formulaziora arte ez da ezer aipagarririk gertatu sozietatearentzat.

Hona hemen 2016ra begira ezarritako helburu nagusiak:

- Irudi bidezko diagnostikoa

Osakidetzarekin Hitzarmen arauemailea berritzea:

Paziente kop. 100.651

Fakturazioa 17.085.000 euro

Programa-kontratua berritzea Osasun Sailarekin

Fakturazioa: 78.205 euro

- Telelaguntza

Prestazioaren kudeaketa gutxi gorabeherako erabiltzaile kopuru jakin baterako: 41.500

Fakturazioa: 7.673.362 euro

- Telemonitorizazioa

Paziente kopurua: 800  
Fakturazioa: 250.000 euro

## **5. Plantilla aldatzeko proposamena.**

Azken urteetan Osateken azpiegitura teknologikoa nabarmen handitu da, eta 1993an Erresonantzia Magnetikoko 2 makina inauguratu baziren, 2015ean 12 makina edukitzera heldu da EAE osoan.

Kontuan hartuta gero eta maizago eskatzen direla Erresonantzia Magnetikoak proba diagnostiko gisa, datozen urteetan arlo hori aise zabalduko dela aurreikusten da.

Bestalde, pazienteen Telelaguntza eta Telemonitorizazio zerbitzuen kudeaketa ere Osatek SAREN prestazio finko bilakatzen ari dira.

Azpiegituren eta zerbitzuen zabaltze horretan, Osatekek aurre egin die premia berriei plantilla finko estrukturala ezertan aldatu barik, lan-karga handiagoei erantzuteko aldi baterako langileak kontratatuz.

Gerenteak Sozietatearen plantillaren egitura aldatzeko eskatu dio Administrazio-kontseiluari, aldi baterako langileen kopurua gutxitu ahal izateko.

Guillermo Viñegra presidentek premien azterketa zehatza egitea proposatu du, eta hurrengo Administrazio-kontseiluari aurkeztea, han onartu dadin.

## **6. 2016ko ekintza garrantzitsuei buruzko informazioa:**

- Urdulizko Ospitalea.

Urdulizko Ospitalearen inaugurazioa 2016ko ekainerako aurreikusita dago.

Erresonantzia magnetikoaren lizitaziorako prozesua prestatzeari ekin zaio jada; guztira, zenbateko honetarako: 1.124.167 €, BEZ barne.

Instalazio-lanak maiatzaren lehenengo hamabostaldian hastekoak dira.

- Telelaguntza kontratatzeko espedientea 2016-2020.

Bileran jakinarazi da 2016ko abuztuaren 31n amaitu behar dela 2012an esleitutako kontratua, Telelaguntza zerbitzua emateko esleitu zena, eta ezin izango dela berriro luzatu; hau da, beharrezkoa dela kontratazio prozedura berria abiaraztea.

Zuzendari gerenteak baimena eskatu dio Kontseiluari zerbitzua kontratatzeko, kontratazio-espediente baten bidez. Proposatutako kontratazio berriaren formatua 2 urtekoa izango da, eta bi aldiz luzatu ahal izango da urtebetez.

Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa 41.110.862,93 €-koa da (LAUROGEITA BAT

MILIOI EHUNDA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO), BEZ barik, modu honetan zatituta:

- Lehen urterako kalkulaturako zenbatekoa: 8.917.080,05 €
- Bigarren urterako kalkulaturako zenbatekoa: 9.822.907,36 €
- Lehen luzapenerako kalkulaturako zenbatekoa: 10.731.260,96 €
- Bigarren luzapenerako kalkulaturako zenbatekoa: 11.639.614,56 €


Espedientea uztailean zehar esleitzea aurreikusi da.

Administrazio-kontseiluak onespena eman du esandako Espedientea tramitatzen hasteko.

## 7. Galde-eskeak


Gai gehiagorik egon ez denez gero, 14:30 direnean, akta hau onartu da eta bilera amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA



Iz.: Susana López Altuna

PRESIDENTEA



Iz.: Guillermo Viñegra García